# Aintziñako fotografixak



**"Argazki hau Oñatiko Turismo Buleguan eskuratu dogu"**

## Orain dela 90 bat urteko Oñati.

*Oñatiko kale-alde gehixena hartzen dauen fotografixa interesgarri hau bi zatittan etarata dago. Gaur plazatik beherakua ikusiko dogu eta datorren aldizkarixan plazatik gorakua. Larogeita hamar urte inguru eukiko dittu Oñatiko herrixaren bista honek, hau da, fan zan mendiaren azkenetakua edo mende honen hasierakua izan leikiela pentsaitten dot. Agustiñuen komentua eta elizia egindda dagozen ezkero, 1891. urtia baiño geruagokua izan biharko dau, baiña ez askoz beranduagokua, beste xehetasun batzuk kontuan izaten badittugu. Plaza ingurua —gutxi gora-behera— gaurko erara moldauta agiri da, baiña orain arte berdura-plazia izan dana jaso barik dago. Unibersidade onduan ospittala ezezik, antxiñako abadetxe edo San Migel monastegixa be ikusten da kanpantorre azpixan. Dana dala, aldaketa sakonenak Ibarra eta Kasablanka aldian dagozela esango neuke: Unibersidadetik aurrerako arboledia trenbidia egin zanian galduko zan; Ibarra eta Olaldeko soro eta zelaixetan eztago oraindddiok fabrika arrastorik; Garaiñeko pospolo-fabrika zaharra bakarrik ikusten da bere tximinixa luze eta guzti, Olalde baiño bastante beherago; baserri honen aurrian agerketan dan Elortzatarren etxiak egin barrixa dala emuten dau, iñolako arbola barik dago eta. Esan daigun, azkenik, Torrealdeko lur gehixenak labraitten zirala sasoi haretan, argazkixak garbi asko erakusten doskun lez.*

*J.E.*

ARKAUZ
Optika
Otsailan Gazteen hilabetea!
Betaurreko eta Kristalak: 6.800
OPTIKO-OPTOMETRISTA
KOLEJIATU ZBKIA: 4275
LAZARRAGA 2
Tfnoa: 71 60 63

ELEKTRIZITATEA
Jose Mª Egaña
- Elektra-instalazioak
- Industri-mantenimendua
- Motor-birbobinaketa
- Automatismoak
- Elektragailuen konpoketa
- Registro zenbakia SS-949

OLAKUA, 13 B
TFNOA. 78 04 42 - OÑATI